

PROFESIONAL-ELKARTEAK,  
ZUZENDUTAKO BEHIN-BEHINEKO AGIRIA

## **PROFESIONAL-ELKARTEEN ESTATUTUAK GORDAILUTZEKO AGIRI-EREDUA** **ERABILTZEKO ARGIBIDEAK**

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak 35.g) artikuluan dioenari jarraituz, administrazioak, elkarteak sortzeko eta aurrera eramateko aholkularitza teknikoa eta lankidetzak eskaintzeaz gain, eskabide-eredu normalizatuak eskaini behar dizkie elkartei.

Arau hori betetzeko, eredu bateratu bat eskaintzen da (eskabidea, eraketa-akta eta Estatutuak). Horren helburua elkarteak arautuko duten estatutuak egiterakoan nondik nora jo behar den erakustea izango da. Hori horrela, inolaz ere ez da pentsatu behar elkarteak bere burua eratzeko duen ahalmenari baldintzak edo mugak ipiniko dizkionik. Izan ere, elkarteak, bere nahierara, estatutuetan beste organo edo batzorde batzuk ezarri ahal izango ditu, bileren araubidea eta deialdia ezarri, erabakien "quoruma" eta erabakiak hartzeko beharrezko diren gehiengoak zehaztu, eta, indarreko lege-esparruaren barruan, antolaketaren eta funtzionamenduaren inguruko edozein erabaki hartu. Horretaz gain, eskabidea egoki iruditzen zaion moduan erabili ahal izango du, eta eraketa-akta ere nahi duen bezala eratuko du.

Bestalde, Estatutu-eredua hobeto ulertu ahal izateko, honako hau adierazten da:

- a) Estatutuaren testuan zehar agertzen diren bidalketa-markak azalpenak emateko dira, eta erantsitako aurkibide batean jasota daude. Horien helburua profesional-elkarteen mekanikarekin eta funtzionamenduekin lotutako zenbait gauza argitzea da.
- b) Hutsuneak, berriz, elkartearen izena, elkartearen helburuak, "quoruma", parte-hartzeak, plazak, nola parte hartu, organoak eta abar jartzeko dira. Elkarteak berak hartuko du, askatasun osoz, horien inguruko erabakia.

**ARREN, EZ BETE DATUAK ESTATUTU-EREDUAN. INTERESDUNAK ESKATZEN**  
**BADU, EUSKARRI INFORMATIKOAN EMANGO ZAIO, TESTU-TRATAMENDU**  
**EGOKIAZ EGIN DADIN**

Jn./and.: ..... con  
NAN/Egoitza-agiriaren zk.: .....  
Jakinarazpenetarako helbidea: kalea..... zk.: .....PK:  
..... herria: ..... Sortze-izapideetan ari den  
"....." izeneko profesional-elkartearen izenean eta  
hura ordezkatzuz (elkartearen lurralde-eremuak ez du .....ko lurraldea  
gainditzen). Jaun/andre horrek gaitasuna du izaera horrekin jarduteko,  
horretarako baimena eman baitzioten ..... an .....ko  
.....aren ..... an elkartea sortzeko egin zen batzarreko ..... puntuko  
erabakian, eta honakoa

#### ESKATZEN DU:

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren Justizia, Lan eta Gizarte  
Segurantza saileko .....ko Lurralde-Ordezkaritzak abian jar dezala elkartearen  
Estatutuak gordailutzeko eta haiek publiko egiteko prozedura (apirilaren 1eko  
19/1977 Legean, elkartze sindikalerako eskubidea arautzen duenean, 3. artikuluan  
eta legea garatzeko xedapenetan adierazita dago). Horretarako, eskabide honekin  
batera, elkartearen eratze-aktaren eta onartutako Estatutuen hiruna ale eransten  
ditu, bai eta eratze-aktaren hiru aleak sinatzen dituzten pertsonen NANaren  
fotokopia (edota egoitza-agiria, hori badagokio).

....., .....ko .....aren .....(e)an.

Izenpetua: .....

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN JUSTIZIA, LAN  
ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILEKO .....KO LURRALDE-  
ORDEZKARITZA SAMANIEGO KALEA 2. 2.a 01008 - VITORIA-GASTEIZ.**

"....."  
**PROFESIONAL-ELKARTEAREN ERATZE-AKTA**

Jn./and.....  
NAN.....  
SINADURA.....  
HELBIDEA.....

Herria:....., Data: .....  
Ordua: ..... Alboan adierazitako  
pertsonek bildu dira, guztiak ere  
adinez nagusiak eta beren izenean  
jarduten dutela.

Jn./and.....  
NAN.....  
SINADURA.....  
HELBIDEA.....

Bilera behar bezala joan dadin, hura  
zuzentzeko .....  
..... jn./and. izendatu  
da, eta idazkari moduan jarduteko,  
berriz, .....  
..... jn./and.

Jn./and.....  
NAN.....  
SINADURA.....  
HELBIDEA.....

Presidenteak hitza hartu du, eta  
adierazi du ekintzaren xedea  
profesional-elkarte bat sortzea  
dela, apirilaren 1eko 19/1977  
Legean, elkarte sindikalerako  
eskubidea arautzen duenean, eta  
legea garatzeko xedapenetan  
ezarritakoaren arabera.

Jn./and.....  
NAN.....  
SINADURA.....  
HELBIDEA.....

Jarraian elkarte arautuko duten  
Estatutuak irakurri eta eztabaidatu  
egin dira.

Jn./and.....  
NAN.....  
SINADURA.....  
HELBIDEA.....

Jn./and.....  
NAN.....  
SINADURA.....  
HELBIDEA.....

(Bazkide sortzaile gehiago baldin  
badaude, atzean zerrendatu)

Eztabaidatu ondoren, eta (aho batez/botoen .....ko gehiengoz) honako  
erabakiak hartu dira:

LEHENDABIZIKOA: Profesional-elkarte bat sortzea. Horren izena  
..... izango da eta

egoitza .....n izango du. Elkartearen xedea Estatutuen ..... artikuluan adierazitako helburuak betetzea izango da, eta beste pertsona batzuei elkarteko kide izateko eskaintza egiten zaie.

**BIGARRENA:** Elkartearen Estatutuak onartzea. Aktari Estatutuen hiru ale erantsi zaizkio.

**HIRUGARRENA:** Behin-behineko Zuzendaritza-batzordea aukeratzea, elkartearen ohiko kudeaketaz arduratu dadin. Batzordekideen zerrenda, bakoitzaren kargua eta guzti, agiri honi erantsi zaio.

**LAUGARRENA:** Elkartek izaera juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izan dezan, Estatutuak bulego publiko eskudunean gordailutzea eta publiko egitea eskatzea, apirilaren 1eko 19/1977 Legean, elkartze sindikalerako eskubidea arautzen duenean, 3. artikuluan eta legea garatzeko xedapenetan adierazitako moduan.

**BOSGARRENA:** Honako bi hauei gaitasuna ematea (Jn./and.: ..... , NAN: .....; eta Jn./and.:..... , NAN: ..... Jakinarazpenetako helbidea, biena: kalea ..... Zk.: ..... PK..... Herria: .....) bakoitzak bere aldetik edo elkarrekin, sortze-izapideetan ari den elkarte ordezka dezaten, honako izapideak egiteko: Estatutuak gordailutzeko —horiek zuzendu eta borondatez aldatzea barne—, eta elkartek izaera juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izateko beharrezko diren gainerako ekintza juridikoak eta gestioak egiteko, eta beste ekintza osagarri batzuk egiteko. Horrekin batera, gaitasuna ematen zaie elkarte ordezkatzeko auzitegietan, administrazio publikoetan eta gainerako pertsona fisiko eta juridikoen aurrean, harik eta elkarte zuzenduko duten organoak onartzen dituen Batzar Orokorra eratu artean.

**SEIGARRENA:** Behin-behineko Zuzendaritza-batzordeari gaitasuna ematea lehen Batzar Orokorra deitzeko apirilaren 1eko 19/1977 Legean, elkartze sindikalerako eskubidea arautzen duenean, 3. artikuluan eta legea garatzeko xedapenetan adierazitako izapideak bete dituela adierazten duen egiaztagiria jaso eta hurrengo ..... (egunetan/astetan/hiletan), bai eta eguneko aztergaiak ezartzeko ere. Aztergai horien artean, gutxienez, honako puntua agertuko da: elkartearen zuzendaritza-organoak hautatzea edo berrestea.

Aztertzeko besterik ez dagoenez, bilera amaitutzat jo da, egun bereko ..... e(t)an.

Eta horrela jasota gera dadin, akta hau idatzi da goian adierazitako lekuan eta egunean, eta bertan parte hartu dutenek hiruna ale sinatu dituzte.



" \_\_\_\_\_ "

**PROFESIONAL-ELKARTEAREN BEHIN-BEHINEKO ZUZENDARITZA-**  
**BATZORDEA**

**PRESIDENTEA:**

Jn./and. ....

NAN .....

HELBIDEA .....

**PRESIDENTEORDEA:**

Jn./and. ....

NAN .....

HELBIDEA .....

**IDAZKARIA:**

Jn./and. ....

NAN .....

HELBIDEA .....

**DIRUZAINA:**

Jn./and. ....

NAN .....

HELBIDEA .....

**BATZORDEKIDEA:**

Jn./and. ....

NAN .....

HELBIDEA .....

**BATZORDEKIDEA:**

Jn./and. ....

NAN .....

HELBIDEA .....

**BATZORDEKIDEA:**

Jn./and. ....

NAN .....

HELBIDEA .....

**BATZORDEKIDEA:**

Jn./and. ....

NAN .....

HELBIDEA .....

" \_\_\_\_\_ "

**PROFESIONAL-ELKARTEAREN ESTATUTUAK**

**LEHENENGO ATALBURUA**

**IZENA**

1. artikulua.- "....." izenaz, irabazi-asmorik gabeko profesional-elkarte bat sortu da, apirilaren 1eko 19/1977 Legean, elkartze sindikalerako eskubidea arautzen duenean, eta legea garatzeko xedapenetan adierazitakoari jarraituz.

2. (Baldin badauka, bereizgarria eta logotipoa).

**ELKARTEAREN HELBURUAK**

2. artikulua.- Elkarateak honako helburuak ditu: (1)

.....  
.....  
.....

Helburu horiek lortzeko, honako jarduerak egingo dira, ezarritako lege-xedapenak aurretik betez:

.....  
.....  
.....

Aurreko atalean azaldutako jardueren kaltetan gabe, elkarateak, bere helburuak betetzeko, honakoak egin ahal izango ditu:

- Edozein motatako jarduera ekonomikoak, bere helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko.
- Era guztietako ondasunak eskuratu eta eduki, titulua edozein dela ere, eta edozein motatako egintzak eta kontratuak egin.
- Edozein motatako ekintzak burutu, legeekin edo Estatutuekin bat etorritz.

**ELKARTEAREN HELBIDEA**

3. artikulua.- Elkarateak                    hemen                    izango                    du                    egoitza:

.....

Elkarateak beste lokal batzuk ere eduki ahal izango ditu ..... horrela erabakitzen badu.



Elkarteak egoitza aldatu ahal izango du ..... horrela erabakitzen badu. Egoitza aldatu egin bada, idazkariak elkartearen Estatutuak gordailutzeko eskumena duen administrazio-organoari jakinaraziko dio.

#### LURRALDE-EREMUA ETA FUNTZIO-EREMUA

4. artikulua.- Elkarte honen ekintzak .....ko lurralde-eremuan gauzatuko dira, bereziki, eta ....., hain zuzen ere (2)

Elkartearen funtzio-eremua honakoa da: ..... (2bis).

#### IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- Elkartea betirako eratzen da eta honako arrazoiengatik soilik desegino da: ezohiko Batzar Orokorrak horrela erabaki duelako, VII. atalburuan ezarritakoari jarraituz; edota legeek ezarritako arrazoiaren batengatik.

#### BIGARREN ATALBURUA

#### ORDEZKARITZA-, GOBERNU- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

##### A) ORGANO KOLEGIATUAK

6. artikulua.- Elkartearen gobernua eta zuzendaritza honako organo kolegiatuek gauzatuko dute: (3)

- Bazkideen Batzar Orokorrak. Organo gorena izango da.
- Zuzendaritza-batzordeak. Zuzendaritza iraunkorreko organo kolegiatua da.

##### BATZAR OROKORRA

7. artikulua.- Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta bazkide horien guztien adierazpen-organoa da. Ohiko eta ezohiko bileretan bilduko da, baina batzar unibertsalak ere baliozkoak izan daitezke, 11. artikuluko azken paragrafoan ezarritakoari jarraituz.

8. artikulua.- Batzar Orokorra, gutxienez, urtean behin deitu beharko da ..... hiruhilekoan (zehaztu 1., 2., 3. edo 4. hiruhilekoa den). Bilera horren helburua honako gaiak aztertu, eta, egoki iritziz gero, onartzea izango da: elkartearen jarduera-plangintza orokorra; inbentarioa; aurreko urteko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuaren memoria eta likidazioa, eta hurrengo urteko aurrekontuak. Elkartearen gainerako zuzendaritza-organoen gestioa ere aztertuko du; izan ere, horiek batzarraren jarraibideekin bat eta horren kontrolpean jardun behar dute.

9. artikulua.- Aurreko artikuluetan ezarritakoaren kaltetan gabe, Batzar Orokorrak du honako erabakiak hartzeko eskumena:
1. Estatutuak eraldatzekoa.
  2. Zuzendaritza-batzordeko eta gainerako zuzendaritza-organoetako kideak hautatu edo berrestekoa.
  3. Elkartea desegitea erabakitzekoa, hori erabaki beharko balitz.
  4. Elkartea beste elkarte batzuekin fusionatu, federatu edo konfederatzeko erabakia hartzekoa, edo horietakoren bat uztea erabakitzekoa.
  5. Estatutuetako 16. artikuluan zehaztutakoa gertatzen bada, Zuzendaritza-batzordeko kideak kargugabetzekoa, bai eta gainerako zuzendaritza-organoetakoak kargugabetzekoa ere.
  6. Estatutuetan berariaz adierazitako gainerako guztiak.
  7. (4)
10. artikulua.- Batzar Orokorrak ezohiko batzarra egingo du Zuzendaritza-batzordeak horrela erabakitzen duenean, dela berak eskatu duelako, dela bazkideen ..... eskatu duelako (Estatutuetan beste ehuneko bat ezartzen ez bada). Bileraren arrazoiak eta helburuak adieraziko dira; eta dena dela ere, batzarra deitzea ezinbestekoa izango da honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko:
- a) Estatutuen aldaketak onartzeko.
  - b) Elkartea desegiteko.
  - c) Elkartea beste elkarte batzuekin fusionatu, federatu edo konfederatzeko erabakia hartzeko, edo horietakoren bat uztea erabakitzeko.
11. artikulua.- Batzar Orokorraren deiak, ohikoak zein ezohikoak izan, idatziz egingo dira, eta honakoak adieraziko dira bertan: lekua, data eta ordua, eta eguneko aztergaiak; eta, bidezkoa bada, Batzar Orokorra zein egunetan eta ordutan bilduko den bigarren deialdian.
- Deia egin eta Batzar Orokorra lehen deialdian bildu bitartean, gutxienez, ..... eguneko tarte egongo da. Batzar Orokorrak bigarren deialdian bildu beharko balu, lehenengo eta bigarren deialdiaren artean, gutxienez, .....(eguneko/orduko/minutuko) tarte egongo da.
- Iragarkian ez balego jasota bigarren deialdiaren data, bilera egin baino ..... egun lehenago jakinarazi beharko da bilera bigarren deialdian noiz izango den.

Batzarrak baliozkoak izango dira biltzeko deirik egon ez arren izaera unibertsalez biltzen badira. Izaera hori edukitzeko, ezinbestekoa izango da bazkide guztiak egotea bileran —dela bertan, dela norbaitek ordezkatuta— eta gehiengo absolutuz batzarra egitea erabakitzea eta bertan aztertuko gaiak zein izango diren onartzea.

12. artikulua.- Estatutuetan berariaz beste zerbaite arautzen denean salbu, Batzar Orokorrak —ohikoak zein ezohikoak— baliozkoak izateko, ezinbestekoa da lehenengo deialdian bazkideen erdia gehi bat egotea bileran (bertan edo norbaitek ordezkatuta); eta bigarren deialdian, berriz, batzarra baliozkoa izango da bertaratutako bazkide-kopurua edozein dela ere.

Bazkideek beste edozein bazkideri eman diezaiokete Batzar Orokorretara joateko beren ordezkaritza, pertsona juridikoak badira izan ezik. Pertsona juridikoek bi aukera dituzte: ordezkaritza beste bazkideren bati eman, edota elkarte juridiko horren organoek elkartean ordezkatuko dituzten pertsonak zein izango diren erabaki eta elkarteari jakinarazi.

Ordezkaritza idatziz emango da, eta batzarreko idazkariaren esku egon beharko du bilera egin baino ..... ordu lehenago, gutxienez. Elkartearen egoitzaz bestelako herri batean bizi diren bazkideek ordezkaritza-agiri hori postaz, telefaxeaz edo beste komunikabide baten bidez igorri ahal izango diote idazkariari.

13. artikulua.- Batzar Orokorren erabakiak boto-gehiengo sinplez hartuko dira (5), Estatutuetan, erabaki jakin batzuk hartzeko, bestelako gehiengo berezitu bat eskatzen ez bada..

#### ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza-batzordea presidenteak, presidenteordeak, idazkariak, diruzainak eta ..... batzordekidek osatuko dute (6).

Gutxienez, ..... behin bildu beharko du, eta elkartearen jarduerak behar bezala burutzeko behar den guztietan.

15. artikulua.- Zuzendaritza-batzordeko kideren bat, ..... hilabeteko epean, ez bada joaten aurretik deitutako bileretara —..... aldiz jarraian edota ..... aldiz txandakatuta—, bere kargua kenduko zaio, hutsegiteak arrazoitzen ez baditu, bederen.

16. artikulua.- Zuzendaritza-batzordeko kargudunak Batzar Orokorrak hautatuko ditu .... urterako, berariaz kargugabetzen ez badira, eta berriro hautatu ahal izango dira.

Kargudunak (7) ..... berrituko dira.

17. artikulua.- Zuzendaritza-batzordeko kide izateko, honako baldintzak bete beharko dira:

- a) Estatutuetan adierazitako moduan izendatuak izatea.
- b) Elkarteko bazkide izatea (8).

18. artikulua.- Zuzendaritza-batzordeko kargua hartzeko, Batzar Orokorrak izendatu ondoren, izendatuak kargua onartu edo horren jabe egin beharko du (9).

Karguek ez dute ordainik izango (10). Dena dela, Batzar Orokorrak, egoki irizten badu, dietak eta gastuak ordaintzea erabaki dezake.

19. artikulua.- Zuzendaritza-batzordeko kideek honako kasuetan galduko dute kargua:

- a) Agintealdia amaitu egin bada.
- b) Kargua uzten badute (11).
- c) Bazkide-izaera galtzen badute, Estatutuetako 32. artikuluko arrazoiren batengatik.
- d) Batzar Orokorrak kargugabetu egiten baditu, Estatutuetako 16. artikulua ezarri zaielako.
- e) Automatikoki kargugabetzen badute, Estatutuetako 15. artikuluan ezarritako arrazoia dela eta.

Kargugabetzea a) atalean adierazitako arrazoiegatik gertatzen bada, Zuzendaritza-batzordeko kideek jardunean jarraituko dute kargu berriak hautatuko dituen Batzar Orokorra egin artean.

Gainerako kasuetan, Zuzendaritza-batzordeak berak beteko du hutsunea. Horretarako, behin-behineko bat izendatuko du. Izendapena Batzar Orokorrerara eramango du, horrek berretsi edo ezeztatu dezan. Ezeztatu egiten badu, Batzar Orokorrak beste bat izendatuko du.

Zuzendaritza-batzordeko kideren batek agintealdia amaitu baino lehen uzten badu kargua, ordezkoa agintealdia amaitzeko geratzen den eperako izendatuko da soilik.

20. artikulua.- Zuzendaritza-batzordeak honako eginkizunak ditu:

- a) Elkartearen kudeaketa aruntaz arduratzea, Batzar Orokorrak emandako jarraibideekin bat, eta haren kontrolpean.
- b) Elkarrekin burutu beharreko jardueren egitasmoa egitea.
- c) Batzar Orokorrari aurkeztea inbentarioa, aurreko urteko gastuen eta diru-sarreraren memoria eta likidazioa, eta hurrengo urteko aurrekontua, horrek onartu edo ezeztatu ditzan.
- d) Ohiko eta ezohiko Batzar Orokorrak deitzea erabakitzea eta horren eguneko aztergaiak egitea.

- e) Bazkideen proposamenak edo iradokizunak jasotzea, eta horien inguruan egoki diren neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetan berariaz adierazitako guztiak.
- g) Estatutu hauetan berariaz beste organoren bati esleituta ez dauden guztiak.

21. artikulua.- Estatutuetan berariaz beste zerbait arautzen denean salbu, Zuzendaritza-batzordea presidenteak —edota presidenteordeak, horrela badagokio— eskatzen duenean bilduko da, dela bere erabakiz, dela batzordekideen ..... eskatuta (edozeinek/beste kopuru bat adierazi) edo bazkideen ..... eskatuta. Batzordearen buru presidentea izango da —hori ez badago, presidenteordea, eta biak falta badira, batzordekide zaharrena—.

Estatutuetan berariaz beste zerbait arautzen denean salbu, batzordeko erabakiak baliozkoak izateko, bertaratutakoen gehiengoaren aldeko botoz hartu beharko dira, eta batzordekideen erdiak egon beharko du bileran.

Idazkariak bilkuren akta egingo du, eta gero horiek akta-liburuan idatziko ditu.

## B) PERTSONA BAKARREKO ORGANOA

### PRESIDENTEA

22. artikulua.- Elkartearen presidentea horren ordezkaria izango da, Zuzendaritza-batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatuko ditu, eta bi gobernu-organo horien buru izango da.

Presidente ez badago, edo kargua aldi baterako ezin badu bete, presidenteordeak ordeztuko du, eta hori ez badago, edo ezin badu kargua hartu, horren ordezkioak.

23. artikulua.- Eskuordetzen dizkioten ahalmen guztiez gain, honako ahalmenak izango ditu presidenteak:

- a) Zuzendaritza-batzordeen eta Batzar Orokorren deiak egitea eta horien bilerak amaitutzat ematea, bateko zein besteko eztabaidak zuzentzea, eta bi organoetan kalitate-botoa izatea bozketan berdinketarik gertatzen bada (12).
- b) Elkartearen jardueren plangintza proposatzea Zuzendaritza-batzordeari, eta elkartearen zereginak bultzatu eta zuzentzea.
- c) Balioz erabakitako ordainketak egin daitezkeen agintzea.
- d) Sortu daitezkeen premiazko arazoei irtenbideak ematea, eta Zuzendaritza-batzordeari haien berri ematea horrek egiten duen lehenengo bileran.
- e) Estatutuetan ezarritako gainerako guztiak.

## PRESIDENTEORDEA

24. artikulua.- Presidenteordeak (13) presidenteari lagunduko dio, eta hura ez badago, edo aldi baterako ezin badu kargua bete, ordezkatu egingo du. Era berean, presidenteak edo gainerako zuzendaritza-organoek berariaz eskuordetzen dizkioten ahalmen guztiak izango ditu.

Presidenteordea ez badago, edo kargua aldi baterako ezin badu bete, Zuzendaritza-batzordeko kide zaharrenak ordeztuko du.

## IDAZKARIA

25. artikulua.- Elkartearen gainerako zuzendaritza-organoek eskuordetzen dizkioten ahalmenen kaltetan gabe, idazkariaren zeregin zehatzak honakoak izango dira: elkarteko bazkide egiteko eskaerak jaso eta izapidetzea, bazkideen fitxategia eta erregistro-liburua egunean edukitzea, akta-liburua zaindu eta han idaztea, eta Estatutuetan berariaz aurreikusitako guztiak.

Horretaz gain, profesional-elkarteen arloan indarrean dauden legez xedapenak bete egiten direla zainduko du —batez ere, elkartearen Estatutuen aldaketaren inguruko erabakiak gordailutu eta publiko egiten direla, bai eta elkartea federatu edo konfederatzearen ingurukoak ere—, elkartearen agiri ofizialak gordeko ditu, elkartearen liburuen eta artxibategien edukiaren inguruko egiaztagiriak emango ditu, eta elkartearen egoitza aldatzen bada, agintari eskudunari horren berri ematen zaiola bermatuko du.

Idazkaria ez badago, edo kargua aldi baterako ezin badu bete, Zuzendaritza-batzordeko kide zaharrenak ordeztuko du.

## DIRUZAINA

26. artikulua.- Elkartearen gainerako zuzendaritza-organoek eskuordetzen dizkioten ahalmenen kaltetan gabe, diruzainak honako eginkizunak izango ditu: diru-sarreraren eta ordainketen berri ematea; inbentarioa egitea; aurreko urteko diru-sarreraren eta gastuen memoria eta likidazioa egitea; eta hurrengo urteko aurrekontuak egitea. Horiek guztiak Zuzendaritza-batzordeari igorriko dizkio, Batzar Orokorrera eraman eta horrek onartu edo ezeztu ditzan (14 eta 15).

## HIRUGARREN ATALBURUA

### BAZKIDEAK: ONARTZEKO BALDINTZAK ETA PROZEDURA, ETA BAZKIDE-MOTAK

27. artikulua.- Elkarteko kide izan daiteke horrela nahi duen pertsona oro (16), honako baldintzak betetzen baditu (17):

a) Pertsona fisikoak: adinez nagusia izan edota adingabeko burujabea, eta eskubide zibil guztiak edukitzea. Pertsona juridikoak: izaera juridikoa eta jarduteko gaitasun nahikoa edukitzea, ordenamendu juridikoari eta pertsona juridikoak arautzen dituzten arauei jarraituz.

.....  
.....  
.....

28. artikulua.- Elkarteko kide izan nahi dutenek presidenteari beren nahia idatziz jakinarazi behar diote. Horrek Zuzendaritza-batzordeari emango dio horren berri, eta horrek onartu ala ez erabaki beharko du. Erabakiari buruzko gorako errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Batzar Orokorrari.

Idazkariak bazkideen erregistro-liburua edukiko du, eta bazkide berria onartu ondoren bertan idatziko ditu horren datu pertsonalak eta profesionalak.

29. artikulua.- Elkarreak, Zuzendaritza-batzordearen erabaki bidez, ohorezko bazkide izendatu ahal izango ditu elkarteko bazkide izateko baldintza guztiak bete arren, elkarrearen helburua betetzeko bertaratu ezin direnak. Ohorezko izaera dute soilik; eta, beraz, ez dute bazkide-izaera juridikorik, ez eta elkarteko gobernu-, administrazio- eta ordezkaritza-organoetan parte hartzeko eskubiderik ere, eta ez dute inolako betebeharririk (18 eta 19).

#### BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30. artikulua.- Bazkide orok honako eskubideak ditu:

- 1) Legearen edo Estatutuen aurkako erabakiak eta jarduerak aurkatzekoa, ..... eguneko epean, erabakiaren edo jardueraren edukia ezagutu edo duenetik kontatzen hasita edo ezagutzeko aukera izan duenetik kontatzen hasita.
- 2) Uneoro elkarteko gainerako kideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen kontuak eta elkarrearen jarduerak ezagutzekoa.
- 3) Batzar Orokorreran hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea erabiltzekoa. Horretarako eskubidea beste baten esku utzi ahal izango du.
- 4) Estatutu hauekin bat etorriz, elkarrearen gobernu-, ordezkaritza- eta administrazio-organoetan eta sor daitezkeen gainerako guztietan parte hartzekoa eta horietako hautesle eta hautagai izatekoa.
- 5) Bazkideen fitxategian egotekoa, eta elkarrearen bereizgarria erabiltzekoa, baldin badauka.

- 6) Estatutuen eta Barne-araubidearen ale bana edukitzekoa, baldin badago, eta zuzendaritza-organoetan eskaerak eta kexak aurkeztu ahal izatekoa.
- 7) Elkartearen talde-ekintzetan parte hartzekoa, eta bazkide guztien erabilerarako elementuak erabiltzea (egoitza, liburutegiak...), betiere, Zuzendaritza-batzordeak ezarritako moduan.
- 8) Zigor-neurriak hartu baino lehen, idatziz bere arrazoiak azaltzekoa, eta neurri horiek ezartzea eragin duten arrazoiak zein diren jakitekoa. Arrazoi horiek, ezinbestean, bazkide-betebeharrak ez betetzean oinarritu beharko dute.
- 9) .....
- 10) (20).

31. artikulua.- Bazkideek honako betebeharrak dituzte:

- a) Elkartearen helburuak lortzeko, lankidetzak aktiboa izatea.
- b) Gastuak ordaintzeko, ezarriko diren kuotak ordaintzea, ..... eurokoak, hain zuzen ere (21).
- c) Estatutuak onartzea eta betetzea, bai eta elkartearen zuzentzen duten organoek hartutako erabakiak ere.
- d) (22).

#### BAZKIDE-IZAERA GALTZEA

32. artikulua.- Bazkide-izaera honako kasuetan galduko da:

1. Bazkidea hil egiten bada (edo pertsona juridikoa izanik, izaera juridikoa galtzen badu).
2. Bazkidea izateko ezarritako baldintzak gerora betetzen ez baditu, edo ezgaitasunen bat badu.
3. Borondatez bereizten bada —Idazkariari igorritako idatzi baten bidez— (23).
4. Zigorra dela-eta bota egiten badute. Hori organo eskudunak erabaki dezake, honako kasua ematen bada: Estatutuetan adierazitako eginkizunak edo erakundea zuzentzen duten organoek hartutako erabaki baliozkoak ez-betetzea, era larrian, behin eta berriro eta nahita.

Bazkide izaera galdu arren, elkartearrekiko izan ditzakeen obligazioak betetzeko errekerimendua egin diezaioke elkarteak, obligaziorik baldin badu.

33. artikulua.- Bazkide batek kanporatua izatea eragin dezakeen egoeraren bat badu, Zuzendaritza-batzordeak, beharrezkoa baldin bada, aurretiko zenbait izapide egitea eska diezaioke idazkaritzari, horren inguruko informazioa lortzeko. Hori kontuan izanda, batzordeak bi gauza erabaki ditzake: egintzak artxibatzea edo zigor-espeditentea irekitzea 35. artikuluan ezarritako moduan.



34. artikulua.- Zigor-espeditentea irekitzen denean, Zuzendaritza-batzordeak erruztatutako pertsonari bazkide-eskubideak kentzea erabaki dezake, eta, Batzar Orokorraz bestelako organoren bateko kide bada, batzordeko kideen bozketa bidez (hor, eragindakoak ezin izango du parte hartu) kargutik kentzea erabaki ahal izango da, Zuzendaritza-batzordeak espeditentea ebazten duen bitartean.

Zuzendaritza-batzordeak bazkide-izaera galtzeko erabakia arrazoitu egingo du, betiere, eta interesatuari jakinaraziko dio. Horretaz gain, adieraziko zaio 30.1 artikuluan aurreikusitako ekintzak hasi aurretik, gorako errekurtsua aurkeztu ahal izango duela egiten den lehen ezohiko Batzorde Orokorrean. Batzordea ..... egunetan/astetan/hiletan ez bada deitzen, horretarako bakarrik deituko da (interesatuak ezin izango du horretan parte hartu).

Ikerketa-jardueraren edo zigor-espeditentearen eraginpean dagoena Zuzendaritza-batzordeko kide baldin bada, Estatutuen 35. artikuluan kasu horietarako xedatutakoa ezarriko da.

Elkartearen organoen kide den norbaiten inguruan bazkide-izaera galtzeko akordio irmoa badago, horrek banantze-bidezko kargugabetzea eragingo du.

#### ZIGOR-ARAUBIDEA

35. artikulua.- Zuzendaritza-batzordeak elkarteko kideak zigortu ahal izango ditu, Estatutuak edo elkarteko zuzendaritza-organoei hartutako akordioak ez betetzeagatik.

Zigorak 15 egunetik hilabetera eskubideak gabetzetik bazkide izaera galtzera artekoak izan daitezke, 32.4 artikulutik 34ra bitartean —biak barne— ezarritako moduan.

Horretarako, eta beharrezko irizten bada, Zuzendaritza-batzordeak, beharrezkoa baldin bada, ikerketa egitea eska diezaioke idazkaritzari, zigorra izan dezaketen jarrerak argitzeko informazioa lortzeko. Hori kontuan izanda, batzordeak bi gauza erabaki ditzake: egintzak artxibatzea edo zigor-espeditentea irekitzea.

Zigor-espeditentea irekitzen bada, instrukzio-jarduerak idazkaritzak egingo ditu. Horrek, gertaerak egiaztatu ondoren, egozten zaizkion karguak eta zigor-proposamena dituen idatzia jakinaraziko dio interesdunari, eta horrek

egokien iruditzen zaiona alegatu ahal izango du. Alegazioak egiteko epea .....koa izango da, eta alegaziorik izan ala ez, gaia lehenengo Zuzendaritza-batzordean aztertuko da. .... epean batzorderik egiten ez bada, horretarako deitu beharko da. Batzordeak egokien dena aukeratuko du, batzordekideen .....aren "quorumaz".

Ikerketa- edo zigor-espediente baten eraginpekoa Zuzendaritza-batzordeko kide baldin bada, ezin izango du batzordean parte hartu, ez eta prozedurako ikertzaile edo instruktore moduan jardun.

Erabakiak arrazoitua izan beharko du, eta 30.1 artikuluan ezarritako ekintzak hasi aurretik, erabakiaren aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Batzar Orokorrean (interesatuak ez du parte hartuko bertan).

Espedientea Batzar Orokorrera eramaten bada, idazkariak espedientearen laburpena egingo du Zuzendaritza-batzordeak erruztatuak aurkeztutako idatziaren berri eman diezaion Batzar Orokorrari eta behar bezala informatu ahal izan dezan, batzarrak gorako errekurtsioa ebazteko.

## LAUGARREN ATALBURUA

### HASIERAKO ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA

36. artikulua.- Elkartearen sortze-ondarea .....eurokoa da. **(24)**.
37. artikulua.- Elkartek, bere elkarte-ekintzak aurrera eramateko, honako baliabideak izango ditu:
- a) ..... (adierazi kuotak zehazteko organo eskuduna) zehazten dituen sarrera-kuotak.
  - b) ..... (adierazi erabaki behar dituen organo eskuduna) erabakitzen dituen aldian aldiko kuotak eta ezohiko kuotak.
  - c) Berari dagozkion ondasunen eta eskubideen etekinak, eta ondorengo hauek: dirulaguntzak, legatuak, dohaintzak eta edozein titulu juridikoren bidez legez jaso eta onar dezakeen gainerako ondasun eta eskubide oro.
  - d) Elkartek —betiere, Estatutuetan adierazitako helburuen barruan— ..... erabakita egiten dituen legezko jardueretatik lortutako diru-sarrerak.

Elkartek lortutako baliabideak ezin izango dira inoiz bazkideen artean banandu.

38. artikulua.- Ekitaldi ekonomikoa urte naturalarekin bat etorriko da, lehenengoa izan ezik. Izan ere, kasu horretan, elkartearen sorrera-egunean hasiko da eta urte horretako abenduaren 31n amaitu.

Urtero, Zuzendaritza-batzordeak Batzar Orokorrera igorriko ditu inbentarioa, aurreko urteko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuaren likidazioa eta memoria (hor jarduerak eta kudeaketa ekonomikoa adieraziko dira, eta ondarean eta elkartearen zuzendaritza-organoetan izandako aldaketak zehaztuko dira) eta hurrengo urteko aurrekontuak, batzarrak onartu ditzan.

Aurrekontuek eta kontuek horren inguruan indarrean dagoen legediak ezarritakoa beteko dituzte, eta legediak horrela eskatzen badu, kanpo-ikuskaritza pasa beharko dute.

Elkartearen aurrekontuak, ohikoak zein ezohikoak, orekatuak izango dira, betiere.

Bazkide-eskubideak etenda ez dituen bazkide orok elkartearen egoera ekonomikoa adierazten duten agiriak erakuts diezazkioten eskatu ahal izango du.

## **BOSGARREN ATALBURUA**

### **ESTATUTUEN ALDAKETA**

39. artikulua.- Estatutuen aldaketa Zuzendaritza-batzordearen ekimenez egin daiteke, haren erabakiz, batzordekideen ..... eskatzen badute, edota bazkideen ..... eskatzen badute. Dena den, kasu guztietan Zuzendaritza-batzordeak ..... bazkidez osatutako lantalde bat osatuko du, aldaketa-proiektua idatz dezan. Horretarako, Zuzendaritza-batzordearen ildoetara jarraituko zaie, eta batzorde horrek ezarritako du egitasmoa zein egunerako amaitu behar den.

40. artikulua.- Aldaketa-proiektua idatzita dagoenean, presidentek egingo den lehenengo Zuzendaritza-batzordearen eguneko aztergaietan sartuko du. Horrek behin-behingo onartuko du, horrela irizten badu, edo berriro lantaldeari itzuliko dio berriz ere aztertu dezan.

Behin-behingo onartzen bada, Zuzendaritza-batzordeak egingo den hurrengo ezohiko Batzar Orokorrean sartuko du, edo horretarako propio deituko du batzarra.

41. artikulua.- Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuen aldaketaren testua erantsiko da, bazkideek idazkaritzari egoki irizten dituzten zuzenketak bidaltzeko. Batzar

Orokorrean, zuzenketa horien berri emango da, baldin eta bilera egin baino ..... egun lehenago idazkaritzaren esku badaude.

Zuzenketak banakoek nahiz taldeek aurkeztu ahal izango dituzte. Idatziz egin beharko dira eta testu alternatiboa eduki beharko dute.

Ezohiko Batzar Orokorrak Estatutuak aldatu ahal izan ditzan, honako quorumak beharko dira: batzarra eratzeko, lehenengo deialdian, ..... bazkidekoa, bigarrean ..... bazkidekoa; eta bozketan, bertaratuen ....., bazkideen ..... direla, gutxienez.

Estatutuen aldaketa onartutakoan, idazkariak Estatutuak eskudun den bulego publikoan gordailutzea eta publiko egitea eskatuko du, indarrean dagoen legedian aurreikusitako moduan.

## **SEIGARREN ATALBURUA**

### **ELKARTEAREN FUSIOA, FEDERAZIOA ETA KONFEDERAZIOA**

42. artikulua.- Elkarteak fusionatu, federatu edo konfederatu ahal izango da, Zuzendaritza-batzordeak proposatuta, dela berak eskatuta, dela batzordekideen ..... edo bazkideen ..... eskatuta.

Erabakia ezohiko Batzar Orokorrak hartu beharko du. Horren deia Zuzendaritza-batzordeak egingo du, eta gaia berariaz sartu beharko du eguneko aztergaietan.

Erabakia hartu ahal izateko, honako quorumak beharko dira: batzarra eratzeko, lehenengo deialdian, ..... bazkidekoa, bigarrean ..... bazkidekoa; eta bozketan, bertaratuen ....., bazkideen ..... direla, gutxienez.

Elkarteak federatzea edo konfederatzea onartutakoan, idazkariak eskudun den bulego publikoan gordailutzea eta publiko egitea eskatuko du, indarrean dagoen legedian aurreikusitako moduan.

## **ZAZPIGARREN ATALBURUA**

### **ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA**

43. artikulua.- Elkarteak honako hauengatik desegingo da:

1. Bazkideen nahiaz. Nahi hori horretarako propio bildutako ezohiko Batzar Orokorrean azaldu beharko da, eta bertan daudenen botoen .....

gehiengoz onartu beharko da (bazkideen gehiengo absolutua izan beharko dute, gutxienez).

2. Kode Zibileko 39. artikuluan adierazten diren arrazoiengatik.

3. Epai irmo bidez.

44. artikulua.- Elkartea desegin egiten bada, ezohiko Batzar Orokorrak likidazio-batzordea izendatuko du. Likidazio-batzordea Zuzendaritza-batzordeko ..... kidek osatuko dute, eta hori arduratuko da elkartearen diruaz.

Elkarreak bazkideekiko eta besterekiko dituen obligazioak ordaindu ondoren geratzen den elkarre-ondarea, geratzen bada bederen, honakoei emango zaie (25) .....

.....  
.....

### **ALDI BATERAKO XEDAPENA**

Eratze-agirian behin-behingo izendatutako Zuzendaritza-batzordeko kideek beren izendapena egingo den lehenengo Batzar Orokorraren esanetara jarri beharko dute.

### **AZKEN XEDAPENAK**

Lehenengoa.- Zuzendaritza-batzordea izango da Estatutu hauetan agertzen diren edukiak interpretatzeko eta izan ditzakeen hutsuneak betetzeko eskumena duen organoa. Horretarako, profesional-elkarteen alorreko lege-araudia bete beharko du beti, eta lehenengo Batzar Orokorrari horren berri eman beharko dio, horrek onar ditzan.

Bigarrena.- (Batzar Orokorrak/Zuzendaritza-batzordeak/.....) Barne-araubidea onartu ahal izango du, Estatutu hauetan ezarritakoa garatzeko. Araubideak ezin izango ditu Estatutuetako xedapenak aldatu.

**ESTATUTUEN EREDUAREN ERANSKINA**  
**BIDALTZE-MARKEN AURKIBIDEA**

1. Ez egin adierazpen oso generikorik, ahalik eta deskribapen zehatzena egin behar da.
2. Ezin du ..... gainditu, baina hori baino eremu txikiagoa hauta daiteke.
- 2.bis. Profesional-elkartearen jarduera-eremua zehaztu behar da; alegia, jarduera ekonomikoaren esparrua, lanbidea edo antzeko beste zerbaite.
3. Elkarteak beste zuzendaritza- eta aholku-organo batzuk edo lan-batzorde batzuk eratu ahal izango ditu. Horien osaera, eskumenak eta araubidea Estatutuetan arautuko da, edo, bestela, Barne-araubidean.
4. Elkarteak Batzar Orokorrari beste eskumen batzuk ere eman ahal izango dizkio. Horiek berariaz adieraziko dira edo honako hondar-klausula baten bidez: "Batzar Orokorrari dagozkio Estatutuetan berariaz beste organo bati esleituta ez dauden eskumen guztiak". Hondar-eskumenak Batzar Orokorrari ematen bazaizkio, Estatutuen ereduko 20.g) artikulua kentzea gomendatzen da (hor, Zuzendaritza-batzordeari esleitzen zaizkio hondar-eskumenak). Horrela, berariaz adierazita ez dauden eskumen horiek bi organori ematea eragotzi nahi da, organo eskumenduna zein den erabakitzeko arazorik egon ez dadin.
5. Elkarteak berak zehatz ditzake erabakiak hartzeko beharko diren quorumak eta gehiengoak. Gehiengo berezia ere ezarri ohi da —bertaratutakoen gehiengo absolutua, eskuarki, edo gehiengo berezitu handiagoa— Estatutuak aldatzeko, eta elkartearen desegiteko, fusionatzeko, federatzeko edo konfederatzeko. Horrela jasotzen da, hain zuzen, ereduan.
6. Elkarteak, gutxienez, presidentea eta idazkaria izatea komeni da. Komenigarria da diruzaina ere izatea, eta elkartearen beharren arabera, beste kargu batzuk ere izatea (presidenteordea, batzordekideak, etab.). Dena den, betiere, gobernu-organoen osaera, funtzioak eta araubidea zehaztu behar da.
7. Karguak denak batera edo zatika berritu daitezke. Berritzea zatika egitea komeni da elkarteak bere bizitza normaltasunez egiten jarraitzea hobeto ziurtatzen baita. Zati batean berritzen bada, artikulua honela idatzita egongo litzateke: "Lehen txandan kideen (kargu zehatzak adierazi ahal izango dira) %50 berrituko da (beste ehuneko bat ere ezar daiteke). Bigarrenean, gainerakoak". Zati batean berritzea ezartzen bada, lehenengo Zuzendaritza-batzordea berritze-sistema horretatik kanpo geratzen dela adierazi beharko litzateke. Izan ere, Batzar Orokorrak osorik hautatuko du, eta Estatutuetan edo organo horretan erabakiko da lehenengo Zuzendaritza-batzordeko zenbat berrituko diren Estatutuen 16. artikuluan adierazitako epearen erdia igarotzen denean.
8. Batzordekide izateko, beste baldintza batzuk ere ezarri ahal izango dira: antzinasun-aldi bat izatea bazkide moduan (lehenengo batzorderako izan ezik) edota beste batzuk.
9. Elkarteak karguaz jabetzea borondatezkoa ala derrigorrezkoa den ezar dezake. Derrigorrezkoa bada, kargurako izendatutakoak bi aukera izango ditu: kargua onartzea edo elkartean baja ematea.

10. Estatutuetan aurkakoa ezartzen bada izan ezik..
11. Kargua derrigorrezkoa dela ezartzen ez bada. Horrela ezartzen bada, 19. artikulua b) paragrafoa kendu beharko da.
12. Presidentearen boto erabakitzailea aukerakoa da. Beraz, Estatutuetako 23.a) artikuluan honakoa kendu ahal izango da "eta bi organoetan kalitate-botoa izatea bozketan berdinketarik gertatzen bada".
13. Derrigorrezko kargua ez den arren, araututa egotea komeni da, presidentea ez badago edo aldi baterako gai ez bada, elkartearen bizitza eten ez dadin.
14. Elkarteak batzordekide-kontuhartzailea izango balu, honako eginkizunak eduki litzake: kontuen liburua egunean edukitzea, hori zaintzea, kontuak ikuskatu eta gaitzestea, eta banku-sinadura edukitzea, beste organoekin batera ala ez. Elkarteak Batzordekide-kontuhartzailerik izango ez balu, diruzainak eduki ahal izango ditu eginkizun horiek.
15. Lehen adierazitako karguez gain, elkarteak beste zenbait ere ezar ditzake, esaterako: liburuzaina, argitalpen-arduraduna, zuzendari-gerentea, etab.
16. Pertsona fisikoak edo edozein motatako pertsona juridikoak izan daitezke, publikoak zein pribatuak. Pertsona fisikoak badira, adinez nagusiak izan beharko dute edota adingabeak burujabeak.
17. Bazkide izateko baldintzetan, nortasunaz eta gaitasunaz gain, eta kide izan nahi duena Estatutuetako 4. artikuluan adierazitako jarduera-eremuko izateaz gain (baldintzen artean sartu behar da nahitaez), elkarteak bazkide izateko beste baldintza batzuk ezarri ahal izango ditu. Esaterako, sarrera-eskabidea ..... bazkidek babestuta egon behar izatea. Edota bestelako hau: bazkide-izaera lortzeko ezinbestekoa izatea, sarrera-eskubideak ordaintzea, baldin baleude, organo eskudunak ezarritako kopuruan eta moduan.
18. "Ohorezko" bazkideak dira. Izaera zientifikoko, azterketako edo ikerkuntzako elkarteetan ohikoagoak dira profesional-elkarteetan baino. Dena den, elkarteak bere horretan utz dezake Estatutuen ereduko 29. artikulua, erabilgarria izan daitekeela uste badu.
19. Horretaz gain, elkarteetan beste zenbait bazkide-mota ere bereiz daitezke. Elkarte-jardunean, honakoak ohikoak izan ohi dira:
  - a) *Sortzaileak* (eraketa-akta sinatzen dutenak). Praktikoak baino ohorezko izaera izan ohi du.
  - b) *Bazkide osoak eta arruntak*. Kopuru mugatuko bazkideak besteengandik bereizteko izan ohi da. Ikerketa-elkarteetan askotan egiten da horrelako bereizketa.
  - c) *Ohorezkoak* (29. artikuluan zehaztutakoak).
  - d) *Babesleak*. Elkarteari baliabide ekonomikoak ematen dizkietenak dira. Ez dute bestelako partehartzerik elkarteetan; eta, beraz, bazkide-mota hau onartzen bada, Estatutuetan arautu egin beharko da horiek ez dutela zuzendaritza-organoei parte hartuko eta ez dutela bazkideen berezko eskubide eta betebeharririk izango.
20. Eskubideei dagokienez, adierazi behar da bazkideren batek elkartearen berak nahi duelako uzten badu, elkartearen uzten duen bazkideak aurretik egindako ekarpenengatik eskubidea duela elkartearen ondarean, baldin eta Estatutuetan berariaz horrela jasotzen bada.

Horrela bada, Estatutuetan dagokion ondare-zatia kitatzeko eskubidea ezarri ahal izango da. Hori zenbatzeko, bazkideak egindako ekarpenak izango dira kontuan —kuota arruntak izan ezik—, baldin eta ondare-murrizketak hirugarrengorik kaltetzen ez badu.

Estatutuetako klausuletan bestelakorik azaltzen ez bada, bazkideak, bere nahiaz, bazkide izateari uzten dionean, ezin izango du elkartearen ondaretik bere zatia eskatu, elkarteari egindako ekarpenak jabetza-eskualdatzeak baitira eta ez maileguak.

21. Sarrerakoak, aldian aldikoak eta ezohikoak izan daitezke, Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza-batzordeak ezarritakoak.
22. Estatutuen arabera, karguak betetzea derrigorrezkoa balitz, gomendagarria da berariaz adieraztea.
23. Ez da beharrezkoa baja emateko eskaera egiteko modu berezirik eskatzea, forma-askatasuna baitago. Dena den, froga moduan erabiltzeko, komenigarria da eskaera idatziz egitea eta jaso izanaren adierazpena izatea. Ez du erantzunik behar, alde bakarreko ekintza izanik, beste ezer gabe du-eta eragina. Eskubideen inguruan, ikus 20. oharra.  
*Aldi baterako baja.* Estatutuek egoera hori ere aurreikus dezakete: elkartea uztea baina berriz sartzeko eskubidea izatea.
24. Baliteke elkarreak sortze-ondarerik ez izatea. Horrela bada, adierazi egin behar da.
25. Elkartearen hondar-ondarea ezin izango da bazkideen artean banatu, eta antzeko erabileretarako izango da, edo, bestela, irabazi-asmorik gabeko erakunde edo elkarteei emango zaie.